

Euskalkian idazteko irizpideak

*Deba Ibarreko
adibidea*

Argitaratzailea:

BADIHARDUGU Deba Ibarreko Euskara Elkartea
Urkizu 11, behe. 20600 Eibar
Tfnoa.: 943 12 17 75
E-maila: koordinatzailea@badihardugu.com

Diseinua, maketazioa eta inprimaketa:

Gertu, Oñati.

Ahozko jarduna izan da euskalkiaren berezko barrutia orain dela gutxira arte, baina idatzian ere erabili beharra izaten da batzuetan eta gero eta sarriago, gainera, gaur egunean.

Gero eta herri gehiagotan ikusten da euskalkian idazteko beharra, bai herri-aldizkarietan edo baita ikastetxe edo bestelakoetan ere. Eta idazteko, dakigun moduan, denok antzera xamar, irizpide berdinak jarraituta idaztea komeni da, bestela gure berbeta gero eta sakabanatuago egongo da eta.

Gure asmoa ez da inongo arau zehatzik ematea. Gainera, hori ezinezkoa litzateke, guk kontuan hartu dugun esparrua Deba ibar osoa delako, eta bertako berbeten artean ere aldea dagoelako. Hemen zehaztuko ditugunak euskalkian idazteko ARGIBIDE batzuk besterik ez dira izango, edozein euskalkitan idazterakoan nondik nora jo jakiteko irizpide batzuk besterik ez. Irizpide orokor-orokorrak izango dira, gainera. Badakigu Deba eskualdeko herri gehienetan (eta baita Euskal Herri osoko beste inguru batzuetan) kontu honen inguruko interesa dagoela eta halako irizpideak zehazteko ahaleginean dihardutela. Hau kontuan izanda, herri bakoitzeko zehaztasunak bertako herritarrek zehazteko lagako ditugu. Esate baterako, herri edo berbeta-eskualde bakoitzak zehaztu beharko ditu bere deklina-bide eta aditz-taula bateratuak.

Irizpide hauek Koldo Zuazoren “Deba ibarretik euskararen herrira” edo Juan Martin Elexpururen “Bergara aldeko lexikoa” lanetan jasota daude zehaztasun gehiagorekin.

Orokortasunak

- Euskara batua izango da erreferentzia nagusia. Idazterakoan, euskara batuko arauak betetzen ahalegintzea izango da oinarritzko irizpidea.
- Ahalik eta laburdura gutxien erabiliko da eta berbak osorik eta banatuta idazten ahaleginduko gara.

(1) *Bergara*, *ezagutu* edo *dogu* idatzi beharko litzateke eta ez *Berga*, *ezautu*, *dou*.

Edozein modutan, berba askorekin zalantzak sortzen dira, eta halakoetan norberaren senari jarraitzea da onena.

- Fonetismoak gure eskualdeko berbetaren marka argia izanda, eskualde edo herri mailan idatziz ere erabili egin behar ditugu, beti komunikazio horren esparrua herrikoa edo eskualdekoa bada.
- Azkenengo bi irizpide hauetan kontuan izan behar da berba barruko kontuak diren ala berba artekoak.

(2) Euskara batuko *biharamuna*, esate baterako, *bixamona* bihur daiteke euskalkian idazterakoan.

(3) Berba artean ez da komeni halako laburdurarik egiterik. Esaterako, *einddozu* > *egin dozu*.



- Gure hizkeran berba “formalik” aurkitzen ez dugunean, batuko lexikora joko dugu, eta ez erdarara.
- Aldaerak (aditzean, deklinabidean, lexikoan...) asko izaten diren arren, ahal den kasuetan forma bat aukeratzea komeni da. Zein aukeratu? Zalantzan egon ezkerro, euskara batutik hurbilen dagoena hartzea izan daiteke irizpide egokia.
 - (4) Adibidez, herri baten *dittugu* eta *doguz* erabiltzen badira, *dittugu* hobetsi, forma zaharragoa delako eta euskara batutik hurbilago dagoelako.
 - (5) Bergara aldean *joan*, *jun* eta *fan* esaten badira, *joan* aukeratzea izango litzateke egokiena.
- Irizpide hauek idatzirako dira eta, esandako moduan, “irizpide”, “argibide” edo “proposamena” besterik ez dira. Hortara, ez da komeni aipatutako irizpideok estuegi hartzerik, kasuistika oso zabala da eta.

Irizpideak



1. H

Batuan moduan: *haundixa, mahaixa, hi, harrua...* Baita “h” horrek dip-tongoa apurtzen badu ere: *mehia, bihorra, behixa...*



2. Z / S

Batuan moduan: *Ezin dogu ezetz esan*



3. TZ / TS

Batuan moduan: *mahatsa, pentsau, baltza...*



4. **Bustidurak:** *iñ, ill, itt, ildd, indd, intt*

Deba ibarreko fonetikan araua da bustidura, eta idatzian ere betidanik agertu da. Guretzat oso arrotz gertatzen da *telebisinuak dino inundazino-ak egon dirala Abadiñoko pabiloi batzuetan* tankerako idazkera ikustea.

Hau kontuan hartuta, euskalkian dihardugunean, bustidurak idaztearen aldekoa da gure iritzia. Hori bai, bustidura idatzian erabili nahi duenarentzat, bi ohar egin nahi ditugu:

a) Bustidura eragin duen <i> bokala ere idaztea: *baiña, laiño, oillo, gaiñera, zailla, maitte...*

b) Berba amaieran bustidurarik ez idaztea: *dakit, zein, hain, hil...*

Herri batzuetan -ITZ- > -TX- bustidura egiten da; halakoetan ere bustidura idatzi egingo dugu, baina kasu honetan <i> barik.

(1) Esate baterako, Eibarren, Ermuan...: *bakotxa, gatxa, hatxa...*

-itt bustiduraren kasuan, hainbat herritan -itx- ahoskera nagusitu da, baina idatziz jatorrizko forma erabili behar dugu: itturrixa, politta...



5. Bokal arteko “g”

Hitza osorik idaztea komeni dela esan dugunez, idatzi egingo dugu.

(2) Adibidez: *ezagun, egon, nagusi, eguen...*

Eta berdin “jaten” ditugun beste hizki batzuekin. Hala ere, adizkietan arazoa konplexuagoa denez, herri bakoitzeko adizkiak jasotzean erabakiko da nola idatzi. Aditzak ere osorik idazteko joera nagusituko den arren, zenbait adizki “g” gabe (edo beste kasu batzuetan “d”) ere ager daitezke, dagoeneko hizki horren arrastoa oso galduta dagoelako: *daixela, dein...*



6. D>R

Nahiz eta sarritan d-ren lekuan “r” esan, euskara batuan moduan “d” idaztea komeni da.

(3) Adibidez: *edan, edo, daukadaz, moduan, pagadi...*



7. Hitz elkarketak

Esan dugun moduan, berbak banatuta idaztea komeni da.

- (4) Adibidez: *bihot*, *etortzeaku*, *etxakixat*, *ikusittut*, *esateuen...* banatuta idatziko ditugu: *bihar dot*, *etortzen jaku*, *ez jakixat*, *ikusi dittut*, *esaten euen...*



8. Ez+aditza

Batuko idazkeratik ez urruntzearren osorik idaztea proposatzen dugu: *ez dakit*, *ez badator*, *ez goiaz*, *ez zan*, *ez jaku*, eta abar. Baiña *eztakit*, *eztator*, *etzan*, *etxaku* ahoskatu behar lirateke. Hala ere, oso aholku eztabai-datua da eta jende askok nahiago du elkartuta idatzi (esaterako, Oñatiko euskaran idazteko irizpideetan elkartuta idaztea erabaki da). Hala egin nahi bada, hona hemen zenbait adibide:

Ez +b= ezb= *ezpadator*, *ezpadoia*, *ezpadaki*.

Ez +d= ezd= *eztator*, *eztaki*, *eztatu*.

Ez + g= ezg= *ez goiaz*, *ez gatoz* (nagusienek ere hala diote). *Ezkoiaz* edo *ezkatoz* ere idatz daiteke.

Ez + z= ezz= *etzeukan*, *etzeban*, *etzan* (Baina eskualdeko zenbait herritan, *ezeban*, *ezan* ere esaten da).

Ez + j= ej= *etxako*, *etxakik*, *etxaukak*.

Ez + n= en= *eneuke*, *eneukan*, *enekixen*.

Ez + l= el= *eleuke*, *elitzake*, *elostake*.



9. Berba amaierak

Berba amaierako hiatoak, esaten ditugun moduan idatziko ditugu: Aldaera bi gure eskualdean:

- a) *-ia, -ia, -ixa, -ua, -ua*
- b) *-ie, -ie, -ixe, -ue, -ue*

(5) Adibidez, Soraluzen: neskia, etxia, ogixa, astua, dirua

Eta berdin berba barruko beste hiatoekin ere: *-oo- > -uo-, -ee- > -ie-, -io > -ixo* eta abar: *gehixen, bixotz...* Kasu horretan ezin da arau orokorrik eman eta herriz herri begiratu beharko da, lekuan lekuko ezaugarrien arabera.



10. Deklinabidearen inguruan:

- **Noren** kasua berba egiterakoan *-re-* barik erabiltzen dugun arren,
- **Nun** kasuarekin nahasteak saihesteko (*etxian nago / etxian izena*) *-re-* hori ere idaztea komeniko litzateke: *etxian nago/ etxiaren izena*.
- *-re-* hori agertzen den gainontzeko kasuetan ere (*-ren, -rekin...*) idaztea komeniko litzateke (salbuespena, batuan ere libre laga diren kasuak: *-gandik, -gana...*).
- Partitiboa osorik idatziko dugu: *-rik*
- Deklinabidean ere “g” hotsa sarritan esaten ez dugun arren, idatzi egingo dugu: *-gaz, -gana, -gandik...*

- Datiboa: batuan araututakoa da kasurik orokorra Deba bailaran (-*ari* / -*ei*) eta ahal denean hori erabiltzea komeni da; dena dela, lekuan lekuko salbuespenak ere egon daitezke.
- Hurbiltze adlatiboa -*ritz* idatziko dugu, horixe delako eskualdeko aldaeren artean formarik zaharrena.



11. **Aditza.** Ezinezkoa da bailara osorako formak zehaztea. Herri bakoitzean bertako formak jaso beharko dira (gehienetan eginda) eta horietxek erabili. Dena dela, forma bat baino gehiago dauden kasuetan, ahal bada bateratzea komeni da, eta testu berean forma bakarra erabiltzea (*dittugu* eta *doguz*, esate baterako).



12. **Erakusleen errepikapena.** Deba ibarrean, sarritan erakusleak birritan erabiltzen dira. Idazterakoan bigarren erakuslea hitzari lotuta eta “h” barik idatziko dugu.

(6) Adibidez: *hau txakurrau, hori gizonori, ha etxia, haura kalia...*



13. **Maileguak:**

Hasieran esan dugun moduan, ahal den kasuetan saihestu egin behar dira eta euskarazko forma erabili. Erabiltzen diren kasuetan:

- **Aditzak:** esaten diren moduan idatziko ditugu: *kantau* (ez *kanta-tu*), *pentsau* (ez *pentsatu*)...

- **-dade**: eskualdean erabiltzen den forma hobetsiko dugu (-dade); dena dela, -tate forma ere onartuko da, forma jasoetarako gehienbat.
- **-n(t)z** eta **-r(t)z**: batuko formak hobetsiko ditugu (*kontzientzia*, *entsalada...*), formarik zaharrenak horrela erabiltzen ditugulako (*pentsau*, *kantsauta...*), baina ahozko formak ere onartuz (*persona*, *berso...*)



14. **Eta**

Beti osorik idatziko da: *eta* (*enda*, *ta*, *da*, *txa* baztertu).



15. **Be** (ere)

Esaten dugun moduan idatziko dugu. Honekin batera *bape* erabiltzen den herrietan, horrela idatziko dugu.



16. **Ezker**

Batuan *etorri*z gero, *hartuz* gero... idazten bada ere, guk *etorri ezker*, *hartu ezker*... idaztea proposatzen dugu.

IDAZKERA-ADIBIDEAK, Deba ibarreko azpieuskalkietan





Antzuola-Bergara

1. Domekero egoten da pelikularen bat zinian eta gu domekero juaten gara.
2. Mikel, zer asmo daukazu domekarako. Juango gara basora?
3. Aspertuta nago, hartuko dogu bizikletia? Guk oso ondo pasatzen dittugu oporrak. Bizikletia hartzen dogu eta errekarara juaten gara arratsaldia pasatzera. Mirenen bizikletia oso-oso politta da. Erosiko dostazu neri be halakua?
4. Gurasuak nik beti egixa esatia nahi dabe.
5. Amak nere gustokuak ez diren oiñetakuak jantzi eragin dost.
6. Miren! Egin zure anaiaren ohia! Nik? Egin deixela berak!
7. Nik lagatako liburua galdu baldin badabe, erosi deixela beste bat.
8. Hau Maddiren gonía da. Ondo ez badauka, edo gustatzen ez bajako, juañ deilla dendara eta aldatu deixela.
9. Mikel, andereñuak esan dau segittuan juateko. Zer esan dau? Ni juateko esan dau? Juañ deilla Asier.
10. Bilbon eskale bati jipoi ikaragarrixa emon jaue eta hil egin dabe.

Aramaio

1. Domekero egoten da pelikularen bat zinien eta gu domekero jueten gara.
2. Mikel, zer asmo dauketzu domekarako? Juengo gara basora?
3. Aspertute nau, hartuko dogu bizikletie? Guk oso ondo pasetan dittugu oporrak. Bizikletie hartzen dogu eta errekarara jueten gara arratsaldie pasetan. Mirenen bizikletie oso-oso politte da, erosiko dustezu niri be holakue?
4. Guresuek nik beti egixe esatie gure daue.
5. Amak nire gostokuek ez dien oiñetakuek jantzi eragin dust.
6. Miren! Egin zure anaiaren ohie! Nik? Egin daixela berak!
7. Nik itxitteko liburue galdu badaue, erosi daixiela beste bat.
8. Hau Maddiren gonie da. Ondo ez badauko, edo gustetan ez bajako, juen daille dendara eta aldatu daixela.
9. Mikel, andereñuek esan dau segiduen jueteko. Zer esan dau? Ni jueteko esan dau? Juen daille Asier.
10. Bilbon eskeko bati paliza izugarrixe emun dutsie eta hil egin daue.

Deba

1. Igandero egoten da pelikularen bat zinian eta gu igandero juten gera.
2. Mikel, zer asmo dakazu iganderako. Jungo gera basora?
3. Aspertuta nago, hartuko degu bizikletia? Guk oso ondo pasatzen dittugu oporrak. Bizikletia hartzen degu eta errixora juten gera arratsaldia pasatzera. Mirenen bizikletia oso-oso politta da, erosiko diazu neri ere horrelakua?
4. Gurasuak nik beti egixa esatia nahi debe.
5. Amak nere gustokuak ez dian oiñetatuak jantzi eragin dizkit.
6. Miren! Egin zure anaixaren ohia! Nik? Egin daixala berak.
7. Nik lagatako liburua galdu badebe, erosi daixela beste bat.
8. Hau Maddiren gonía da. Ondo ez badaka, edo gustatzen ez bazako, jun daixala dendara eta aldatu daixala.
9. Mikel, andereñuak esan du derrepente juteko. Ze esan du? Ni juteko esan du? Jun daixala Asier.
10. Bilbon eskale bati sekulako paliza eman diobe eta hil egin debe.

Elgeta

1. Domekero egoten da pelikularen bat zinian eta gu domekero juaten gara.
2. Mikel, zer asmo dakazu domekarako. Juango gara basora?
3. Aspertuta nago, hartuko dogu bizikletia? Guk oso ondo pasatzen dittugu oporrak. Bizikletia hartzen dogu eta erre kara juaten gara arratsaldia pasatzera. Mirenen bizikletia oso-osu polita da. Erosiko dostazu neri be halakua?
4. Gurasuak nik beti egia esatia nahi dabe.
5. Amak nere gustokuak ez diran oiñetakuak jantzi eragin dosta.
6. Miren! Egin zure anaiaren ohia! Nik? Egin deixela berak!
7. Nik lagatako liburua galdu badabe, erosi deixela beste bat.
8. Hau Maddiren gonía da. Ondo ez badauka, edo gustatzen ez bajako, juan deilla dendara eta aldatu deixela.
9. Mikel, andereñuak esan dau segiduan juateko. Zer esan dau? Ni juateko esan dau? Juan deilla Asier.
10. Bilbon eskale bati kriston egurtua emon dotse eta hil egin dabe.

Elgoibar-Mendaro

1. Domekero egoten da pelikularen bat zinian eta gu domekero juten gera
2. Mikel, ze asmo dakazu domekarako. Jungo gera Kalamuara?
3. Aspertuta nago, hartuko dogu bizikletia? Guk oso ondo pasatzen dittugu oporrak. Bizikletia hartzen dogu eta errekarara juten gera arratsaldia pasatzera. Mirenen bizikletia oso-oso politta da, erosiko diazu neri ere hola-kua?
4. Gurasuak nik beti egixa esatia nahi debe.
5. Aittak nere gustokuak ez diran oiñetakuak jantzi eragin diaz.
6. Miren! Egin zure anaixaren ohia! Nik? Egin deixala berak!
7. Nik lagatako liburua galdu badebe, erosi deixela beste bat.
8. Hau Maddiren gonía da. Ondo ez badaka, edo gustatzen ez bajako, jun dadilla dendara eta aldatu deixala.
9. Mikel, andereñuak esan dau berehala juteko. Ze esan dau? Ni juteko esan dau? Jun dadilla Asier.
10. Bilbon eskale bati jipoi ikaragarrixa eman diue eta hil egin debe.

Eibar-Ermua-Soraluze

1. Domekero egoten da pelikularen bat zinian eta gu domekero juaten gara.
2. Mikel, zer asmo dakazu domekarako. Juango gara basora?
3. Aspertuta nago, hartuko dogu bizikletia? Guk oso ondo pasatzen dittugu oporrak. Bizikletia hartzen dogu eta erreka juaten gara arratsaldia pasatzera. Mirenen bizikletia oso-oso polita da, erosiko destazu neri be holakotxia?
4. Gurasuak nik beti egia esatia nahi dabe.
5. Amak nere gustokuak ez diran oiñetakuak jantzi eragin destaz.
6. Miren! Egin zure anaiaren ohia! Nik? Egin deixala berak!
7. Nik lagatako liburua galdu badabe, erosi deixela beste bat.
8. Hau Maddiren goniat da. Ondo ez badauka, edo gustatzen ez bajako, jua deilla dendara eta aldatu deixala.
9. Mikel, andereñuak esan dau berihala juateko. Zer esan dau? Ni juateko esan dau? Jua deilla Asier.
10. Bilbon eskeko bati blastio ikaragarria emon detse eta hil egin dabe.



Leintz bailara

1. Domekero egoten da pelikularen bat zinian eta gu domekero faten gara.
2. Mikel, zer asmo daukotzu domekarako. Fango gara basora?
3. Aspertuta nau, hartuko dogu bizikletia? Guk oso ondo pasetan dittugu oporrak. Bizikletia hartzen dogu eta erre kara faten gara arratsaldia pasetan. Mirenen bizikletia oso-oso politta da, erosiko dostazu niri be holakua?
4. Gurasuek nik beti egixa esatia gura daue.
5. Amak nire gustokuak ez dien oiñetakuak jantzi eragin dost.
6. Miren! Egin zure anaiaren ohia! Nik? Egin daixela berak!
7. Nik itxittako liburua galdu badaue, erosi daixela beste bat.
8. Hau Maddiren gonía da. Ondo ez badauko, edo gustetan ez bajako, fan dailla dendara eta aldatu daixela.
9. Mikel, andereñuak esan dau berihala fateko. Zer esan dau? Ni fateko esan dau? Fan dailla Asier.
10. Bilbon eskale bati jipoi ikaragarrixa emun dotsie eta hil egin daue.

Mallabia

1. Domekero egoten da pelikularen bat zinien eta gu domekero jueten gara.
2. Mikel, zer asmo daukezu domekarako. Juengo gara basora?
3. Aspertute nago, hartuko dogu bizikletie? Guk oso ondo pasatzen dittugu oporrak. Bizikletie hartzen dogu eta erre kara jueten gara arratsaldie pasatzen. Mirenen bizikletie oso-oso politte da, erosiko deustezu niri be holakue?
4. Gurasuek nik beti egixe esatie gure dabe.
5. Amak nire gustokuek ez diren oiñetakuek jantzi eragin deustez.
6. Miren! Egin zure nebiaren ohie! Nik? Egin daixela berak!
7. Nik itxitteko liburue galdu badabe, erosi daixela beste bat.
8. Hau Maddiren gonie da. Ondo ez badauke, edo gustatzen ez bajako, juen daittela dendara eta aldatu daixela.
9. Mikel, andereñuek esan dau segiduen jueteko. Zer esan dau? Ni jueteko esan dau? Juen daittela Asier.
10. Bilbon eskale bati jipoi ikaragarrixe emon deutse eta hil egin dabe.

Mutriku

1. Domekero egoten da pelikularen bat zinian eta gu domekero juten gera.
2. Mikel, ze asmo dakazu domekarako. Jungo gera mendira?
3. Aspertuta noi, hartuko degu bizikletia? Guk oso ondo pasatzen deguz oporrak. Bizikletia hartzen degu eta errixora juten gera atsaldia pasatze-ra. Mirenen bizikletia oso-oso politta da, erosiko diazu neri ere holakotxia?
4. Gurasuak nik beti egixa esatia nahi deue.
5. Amak nere gustokuak ez dian oiñetatuak jantzi eragin ditx.
6. Miren! Egin zure anaixaren ohia! Nik? Egin daixala berak.
7. Nik lagatako liburua galdu badeue, erosi daixela beste bat.
8. Hau Maddiren gonía da. Ondo ez badaka, edo gustatzen ez bazako, jun daixala dendara eta aldatu daixala.
9. Mikel, andereñuak esan deu derrepente juteko. Ze esan deu? Ni juteko esan deu? Jun daixala Asier.
10. Bilbon eskale bati sekulako palizia eman dixue eta hil egin deue.

Oñati

1. Domekero izaten da pelikularen bat zinian eta gu domekero faten gara.
2. Mikel, zer asmo dako zu domekarako. Fango gara basora?
3. Aspertuta nago, hartuko dogu bizikletia? Guk oso ondo pasaitten dittugu oporrek. Bizikletia hartzen dogu eta erre kara faten gara arratsaldia pasaittera. Mirenen bizikletia oso-oso politta da, erosiko dostazu niri be horrelakua?
4. Aitta-amak nik betek egixa esatia gura daue.
5. Amak nire gustukuak eztiran oiñetakuak jantzi eragin dost.
6. Miren! Egin zure anaiaren ohia! Nik? Egin dagixela berak!
7. Nik itzittako liburua galdu badaue, erosi dagixeilla beste bat.
8. Hau Maddiren gonia da. Ondo ezpadako, edo gustaitten ezpaxako, fan dedilla dendara eta aldatu dagixela.
9. Mikel, andereñuak esan dau berihala fateko. Zer esan dau? Ni fateko esan dau? Fan dedilla Asier.
10. Bilbon eskeko bateri egurtu ikaragarrixa emun xaue eta hil egin daue.

Laguntzaileak:



MUTRIKUKO
UDALA



DEBAKO
UDALA



MENDARAKO
UDALA



ELGOIBARKO
UDALA



EIBARKO
UDALA



SORALUZECO
UDALA



ELGETAKO
UDALA



BERGARAKO
UDALA



ANTZUOLAKO
UDALA



ARRASATEKO
UDALA



ARAMAIOKO
UDALA



ARETXABALETAKO
UDALA



ESKORIATZAKO
UDALA



GATZAGAKO
UDALA



OÑATIKO
UDALA



MALLABIKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO
JAURLARITZA